

DIPUTAU-GEI BAT



I P U I Ñ A

Chori danak eguak,
Batzuk obak kantuak.

On *Kaišok*, zelan daben nai diputau izan,
Ikusi dogu emen pobre baten gisan;
Limosnabat legeche botoak eskatzen,
Kapelea nai nori eutsala erazten;
Ibilli da echalde, ta erririk erri,
Askok burla egiten eutsala berari;
Beste batzuk aurrean ondo esan arren,
Atzea emotean laster saltzen eben.

Auše da bai, auše da oraingo mundua,
Ezin leike nai nogaz bat egin burua;
Ez da besterik emen bakochak berea,
Dana da andi-naya, dana da temea;
Chiki zalerik iñor ez dot aurkietan,
Danok igo-bideak gabiltzaz topetan;
Besteren faltak barriz dakarguz kanpuan,
Noberenak ezkutau echean barruan;
Umildadea nonbait egin dogu galdu,
Karidadea diru gichigaitik saldu.

¡Politika dontsuak! ¿zer ekarri deusku?
Babelera mundu au egin dau biurtu;
Gaurko gauzokaz ¿nok zer leike zuzen esan?

Alan bagoaz nora ez dakit goazan.
 Baña, gure on *Kaišok* batez bere nau ni,
 Moldaerau zelanbait egitera jarri;
 Ikaratuta nauka jaun onek sekula,
 Alkate bere izan ez dabenak gura;
 Zelan aurten sartu dan diputau tratuan,
 Bere izen ederra galtzeko tayuan.

On *Kaišo* jayotzatik da lotsor, otzana,
 Ezdabaidetarako inoz gauz ez dana;
 Gañera da bildots bat legez baketsua,
 Inogaz asarrerik ez eukitekua;
 Baita jakiñ dabena diru asko galtzen,
 Auziari lekurik emore ez arren.

Oraindiño geiago, da praille antzera,
 Nekez batu oi dana gizonen artera;
 Bere familiagaz beti dot ikusi,
 Erretiroan legez jakulako bizi;
 Orrešegaitik nago oso sinistuta,
 On *Kaišok* dakarrela burua galduta,
 Botorik emongo nik beintzat eneuskio,
 Zergaitik diputautzat ez daben balio.

Gizon guztiok bere, naiz izan personak,
 ¿Danak legegintzako doguz zentzun onak?
 Choriak bere izan arren egaztiak,
 ¿Kantetako al dira danak egokiak?
 Asko ez dira gauza kayoletarako,
 On *Kaišo* ez dan legez kortietarako;
 Ara joana gaitik ezpada kantari,
 Esateko egia oso eta garbi,
 ¿Zer deutsa egiñ arren joan da etorri,
 Erriaren onen bat ezpada ekarri?
 Eta zelan goazen aurrera charrago,
 Igaz gaizki ta aurten, piskat okerrago;
 ¿Ez ditugu egingo kontuak atera,
 Zer izango dan gugaz bagoaz onela?
 Berau gaitik bear au agertu nai neban,
 Itsu egozan asko argitzeko eran.

¡O! baña lastimea amaitu baño len,

Aurten boto eguna sartu jaku emen!
 Alan bere balio daizkun urrenguan,
 Jentea jarri nai dot gaurdanik kontuan;
 Augaitik puskacho bat bear dot luzatu,
 Kreiturik galdu baga on *Kaišo* salatu.

Irakurla maitea begiratu ondo,
 Zelako gisajoa dan gure on *Kaišo*;
Porru errenteroa zerbait esatera,
 Joan jakon goiz baten berari echera;
Dran dran atea jota dator neskachea,
 Dinotsa *Porruk*: nai dot nausia ikustea,
 —Ezin ziñaike *Porru*, nausirik ikusi
 Gau charra pasau dau ta dago oso gaizki.
 —¿Benturaz ete eban bart larregicho jan?
 —Ez *Porru* bategaz zan berotu disputan.
 —¿Bategaitik ez al zan ainbeste berotu?
 —Bai, *Porru*, iñoz alan ikusi ez dogu.
 —¿Zeinbat obeto eban ezetan ez nastau,
 Bakean egiteko osasuna gozau!
 ¡Gisajoak urteten badeusku diputau
 Madrillen bearko dau askogaz disputau!

.
 Gizonak zetan daukan berezko modua,
 Atanche bear leuke artu enpliu;
 Baña aiñ gach da ori gachik bada ezer,
 Agaitik munducho au beti dabill oker.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

Ochandion, 1893-ko urtean.

